

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai otsailaren 14an

OLAFUR ELIASSON

BIZITZA ERREALEAN

Babeslea:



Ohore handia da niretzat *Olafur Eliasson. Bizitza errealean* erakusketaren katalogoa aurkeztea. Erakusketa horretan, Guggenheim Bilbao Museoak, Iberdrolaren laguntzarekin, zehatz-mehatz aztertzen du gaur egungo artista garrantzitsuenetako baten obra; bertan biltzen dira aurrez ere ikusgai egon diren artistaren artelan garrantzitsuenetako batzuk, baita berariaz erakusketa honetarako sortutako beste batzuk ere; guztietan, agerian geratzen da Eliassonek gizartearekiko eta ingurunearekiko duen konpromiso sakona.

Eliassonek galerietatik eta museoetatik harantz eraman du artistaren papera, eta diziplina anitzeko ikuspegian integratu; zeregin horretan, zientzia, arkitektura, enpresa, politika, dantza edo sukaldaritza bezalako esparru ezberdinetako profesionalek lagundu diote. Bere lanetan, artista eskandinaviarrak pintura, argazkilaritza, eskultura eta instalazio handiak uztartzen ditu, eta erreala eta artifiziala denaren arteko harremanak aztertzen; pertzepzioaren eta esperientziaren artekoak. Haren obraren alderdi nabarmenena da ikuslea protagonista bihurtzen duela; hala, gizartearen erronketako askotan murgil daiteke, eta askotariko esperientziak izan. Eliassonen hitzetan, esperientzia horiek "munduan parte hartzera" daramate publikoa.

Erronka horietako bat funtsezkoa da Iberdrolarentzat ere: garapen iraunkorra sustatu behar da eta zerbait egin behar da klima-aldaketa geldiarazteko. Erakusketako obra askok lotura dute ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin, eta, haiek gauzatzeko, naturara eta naturako elementuetara jotzen du Eliassonek. Artistak era guztietako materialak jartzen ditu ikuslearen zentzumenen menpe —esaterako, zura, ura eta goroldioa—, gizateria hondatzen ari den natura sentitzeko aukera izan dezan.

Herritarrak berotze globalaren ondorioez ohartarazteko egindako ahaleginak saritze aldera, duela gutxi Eliasson Garapenerako Nazio Batuen Programako (UNDP) klima-ekintzaren eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) Borondate Oneko enbaxadore izendatu zuten.

Horregatik guztiagatik, Iberdrolarentzat atsegin handia da erakusketa hau sustatzea. Eta Guggenheim Bilbao Museoak antolatutako erakusketa garrantzitsuak babestuz (adibidez, Olafur Eliassonen atzera begirako hau), arte- eta kultura-ondarea sustatu eta zabal dadin laguntzen dugu, funtsezko alderdia baita gure gizartea hazi eta gara dadin.

Erakusketara datozen guztientzako gonbidapena: murgil zaitzete Eliassonek errealitateari eta pertzepzioari buruz egiten dituen ikerketetan; munduan dugun eraginari buruzko hausnarketa egitera eramango zaituztete. Amaitzeko, Museoko arduradunek erakusketa bikain hau gauzatzeko egin duten lan itzela aitortu nahiko nuke; ziur denboraldi honetako erakargarrienetako bat izango dela.

Ignacio S. Galán
Iberdrolaren Presidentea

Olafur Eliasson *Bizitza errealean*

- Egunak: 2020ko otsailaren 14tik ekainaren 21era
 - Komisarioak: Mark Godfrey, Nazioarteko Artearen goi-arduraduna, Tate Modern, eta Lucía Agirre, arte-arduraduna, Guggenheim Bilbao Museoa
 - Babeslea: Iberdrola
 - Tate Modern-ek antolatutako erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoaren lankidetzarekin.
- Erakusketa 1990 eta 2020 urte artean sortutako hogeita hamar bat lanek osatzen dute, eta horietan gure ingurunea hautemateko eta bertan moldatzeko modua zalantzan jartzen da, gaur egun puripurian dauden gaiez hausnartzera eramatearekin batera.
 - Eliasson-en lan artistikoaren elementu nagusiak honako hauek dira: naturarekiko kezka, Islandian igarotako denboratik sortua; geometriari buruzko ikerketa; eta inguratzen gaituen mundua hautemateko, sentitzeko eta bertan moldatzeko moduaren etengabeko ikerketa.
 - Eliasson-en lana artelanak eta erakusketak sortze hutsetik haratago doa, eta, era horretan, esku-hartze publikoak, proiektu arkitektonikoak eta aktibismoa sartzen ditu.
 - Museoaren kanpoaldean, hamaika metrotik gorako altuerako ur-jauzi bat aurkitzen da, aldamiorekin eta ur-ponpekin egina, eta hiri-ingurunean «eraikitako naturarekiko» arreta pizten du ikuslearengan.

Guggenheim Bilbao Museoa *Olafur Eliasson: bizitza errealean* erakusketa aurkezten du. Gure garaiko artistarik nabarmenetarikoa den Olafur Eliasson-en (1967) jardueran zehar egiten den ibilbidea da erakusketa. 1990 eta 2020 urte artean sortutako hogeita hamar bat obraren bitartez —tarteetan, eskulturak, argazkiak, pinturak eta instalazioak—, erakusketarekin gure ingurunea hautemateko eta bertan moldatzeko modua aztertzen du artistak, gaur egun puripurian dauden gaiez hausnartzera eramatearekin batera.

Eliasson-en artea pertzepzioarekiko, mugimenduarekiko, esperientzia sentsorialarekiko eta norberaren sentimenduekiko interesetik sortzen da. Haren jardun artistikoaren elementu nagusiak hauek dira: naturarekiko kezka, Islandian igarotako denboran sortutakoa; geometriari buruzko azterketa; eta inguruko mundua hautemateko, sentitzeko eta hari forma emateko moduaren etengabeko ikerketa. Haren jarduera artelanak eta erakusketak sortzetik haratago doa, eta, era horretan, esku-hartze publikoak eta proiektu arkitektonikoak sartzen ditu.

Eliasson-en estudioa Berlinen kokatzen da, eta, bertan, eskarmentu handiko artisauek, arkitektoak, ikertzaileak, sukaldariak, arte-historialariak eta espezialitate ezberdineko teknikariak biltzen dira. Sormen artistikorako ez ezik, kulturako profesionalekin, arduradun politikoekin eta zientzialariek elkartzeko eta

elkarrizketatzeko ere lekua bada. Eliasson-ek uste du arteak eragin nabarmena izan dezakeela museoek haraindiko munduan, eta, horrela, eguzki-lanparak sortu ditu argindarrak ez duten komunitateetarako, arte-tailerrak egin ditu asilo-eskatzailleentzat eta errefuxiatuentzat, instalazio artistikoak prestatu ditu klima-aldaketaren inguruan kontzientzia hartzeko, eta 2019ko irailean, Garapenerako Nazio Batuen Programaren (GNBP) Borondate Oheko Enbaxadore izendatu zuten. Artistaren arabera, «Arteak ez da objektua, objektuak munduari egiten diona baizik».

ERAKUSKETAREN LABURPENA

Museoaren kanpoaldean, hamaika metrotik gorako altuerako ur-jauzi bat aurkitzen da, aldamiorekin eta ur-ponpekin egina, eta urak Museoaren atzealdean jarritako urmaelera isurtzen ditu, natura beteko ur-jauzi baten soinu berak eginaz eta itxura bera hartuz. Obra honek Olafur Eliasson-ek natura eta teknologia nola batzen dituen erakusten digu, obraren azpian dagoen mekanismoa agerian utziz eta hiri-ingurunean «eraikitako naturarekiko» arreta bisitariengan piztuaz. Pieza hau *Ur-jauzia (Waterfall)* seriearen jarraipena da, Sidney (1998), New York (2008), São Paulo (2011) eta Versailles (2016) bezalako hirietan aurretik aurkeztua.

205. gela

Maketa-gela (Model room, 2003) obran, geometriako 450 bat eredu, prototipo eta estudio daude, tamaina ezberdinetakoak. Oro har, Eliasson-ek bere estudioko taldearekin egindako lanaren eta Islandiako Einar Thorsteinn (1942–2015) artistarekin, matematikariarekin eta arkitektoarekin jorratutako lankidetzaz luzearen erregistroa dira.

1996 eta 2014 urte artean, biek elkarrekin egin zuten lan proiektu askotan, eta Eliasson-en eskultura eta pabiloi batzuen forma geometrikoak, simetriak eta proportzioak aztertu zituzten. Maketa horiek egiteko, material sorta zabala erabili zuen artistak; hala nola, kobrezko haria, kartoia, fotokopiak, lego-piezak, egurra, aparra eta gomazko bolak. Horrela, urte askotan zehar, «erreferentziazko liburutegi» gisa balio izan dute Olafur Eliassonen lantegirako. Gaur egun, *Maketa-gela* Stockholm-eko Moderna Museet-en bildumakoa da, nahiz eta estudioak eta bereziki diseinu eta geometria taldeek maketak eta prototipoak sortzen jarraitu, ikerketaren zati gisa.

Isla baten deskribapena edo haren ezaugarri buruzko ariketa atsegina bat (Eine Beschreibung einer Reflexion, oder aber eine angenehme Übung zu deren Eigenschaften, 1995) lanean, foku bat ispilu biribil batera zuzenduta agertzen da, eta horrek argia azalera ondulatuko bigarren ispilu batera islatzen du. Azken horrek, berriz, errotazio oso bat egiten du 30 segundoro, eta, egiten duen neurrian, argi irregularra islatzen du baita ere zirkulu-formakoa den proiektzio-pantailaren atzealdean.

Zure zalantzazko itzala (kolorea) [Your uncertain shadow (colour), 2010] obran, koloretako bost foku lurtean aurkitzen dira elkarrengandik oso hurbil, eta argia horma zuri batera zuzentzen dute, koloreak nahasiaz eta argi zuria eginaz. Bisitariak fokuen aurreko espaziora sartzean, haien itzalak horman agertzen dira haien mugimendu guztiak handitzen dituzten koloretako silueta-multzoak sortuz, eta itxuraz zuria den argi hori osatzen duten koloreak agertarazten dituzte.

206. gela

Gela honetan, Eliasson-ek goiztiar egindako obrak biltzen dira, eta egun haren artean darraiten interesak agertzen dira. Eliasson-ek *Leiho-proiektzioa* (*Window projection*, 1990) eta *Izangaia* (*Wannabe*, 1991) sortu zituen oraindik ere artearen eskolan ikasten zebilela. Obra horietan era askotako argiak erabiltzen ditu espazioaren eta arkitekturaren esperientzia aldatzeko. Garai hartako artistaren lan askorekin gertatzen den moduan, mekanismoa oso sinplea izateaz gain, beti agerian egoten da.

Eliasson-ek beti izan ditu hizpide natura eta klima. Hasieratik, Islandiako paisaiako esperientziak lotuko ditu haren eskultura eta instalazioekin, eta *Olatu-makinak* (*Wavemachines*, 1995) bezalako pieza batzuetan, naturako fenomenoak birsortzen saiatzen dira. *Likenezko horma* (*Moss wall*, 1994) Eskandinaviako elur-oreinek jaten duten likenarekin sortu zuen, eta horrela, artistak kanpoko material ezustekoa sartuko du museoaren barruko espazio kontrolatuan. Obraren usainak eta ehundurak ere zentzumenetan eragina dute.

209. gela

Olafur Eliasson-ek ispiluekin eta islekin lan egiten du laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdeaz geroztik. Gela honetan honako obra hauek daude: *Zure ikuspegi espirala* (*Your spiral view*, 2002), *Zure leiho planetarioa* (*Your planetary window*, 2019) eta esekita dauden beste zenbait obra: *Haize hotzeko esfera* (*Cold wind sphere*, 2012), *Izar-hautsaren partikula* (*Stardust particle*, 2014) eta *Bizitza errealean* (*In real life*, 2019).

Artistaren ustez, obra horiek ikusmen-esperientzia ludiko bat baino zerbait gehiago eskaintzen dute. *Zure ikuspegi espiralean* eta *Zure leiho planetarioan*, esate baterako, isla mordoak ikusten duguna birkonfiguratu dute. Ikuspegi ezberdinak agertzen zaizkigu aldi berean, eta, horrekin, geure eitea eta kokapena modu berrietan hautematen ditugu. Espazioa kontrolatzeari uzteko eta nolabaiteko zalantzak gu gidatzeko aukera ematen digu.

Obra bakoitza printzipio geometriko konplexuak baina erregularra denak egituratzen du. Artistari gehienbat espirala interesatzen zaio, horrek objektuaren barruan eta kanpoan sortzen duen energia-sentsazioagatik, inguruko hormetan sortzen den argi eta itzalen jolasaren bitartez.

Zure irudizko etorkizuna (*Your imaginary future*, 2020) lanean, arku erdizirkular bat muntatuta dago sabaian kokatutako ispilu batean, honela benetako arku eta haren isla bisualki konbinatzen dira ispiluko azalera zeharkatzen duen eraztun erraldoiaren ilusioa sortzeko, honela galeriako espazio errealeak eta ispiluan agertzen den espazio birtualak bat egiten dute.

207. gela

Gela honetan, bisitaria *Zure kolore-atlas atmosferikoa* (*Your atmospheric colour atlas*, 2009) obran murgiltzen da. Artifizialki sortutako lainogune batzuk daude espazioaren sabaian lauki eran jarritako ehunka fluoreszentetatik datozen oinarrizko hiru koloreekin —gorria, berdea eta urdina— koloreztatuta. Argiztatutako atmosferan zerratuan zehar oinez ibiltzeko, bisitaria koloretako atlas intuitibo horretaz baliatuko da.

203. gela

Kolore batentzako gela (*Room for one colour*, 1997) lanean, gela zuri bateko sabaian ipinitako lanparek uhin bakarreko argi horia ematen dute, zeinarekin espazioak kolore horia hartzen baitu, eta, era horretan, ikusleak kolore horiak, beltzak eta tonu grisak bakarrik ikusten ditu. Ingurune horiaren aurreko erreakzio moduan, espazio horretatik ateratakoan, une batez isla urdinxka bat nabarituko du ikusleak.

202. gela

Eliassonek glaziar izotza erabiltzen du maiz haren lanetan. Batzuetan, izotzaren bitartez deia egin nahi izaten du klima-aldaketa gerarazteko zerbait egiteko. Temperaturak igotzearen ondorioz, urtean 200.000 eta 300.000 milioi tona izotz artean galdu da Groenlandian, eta kopuru horrek gora egiten jarraituko duela uste da. *Absentziaren presentziaren pabiloia* (*The presence of absence pavilion*, 2019) lanean, brontzezko molde-lanaren bitartez, urrutako glaziar-izotz bloke batek utzitako espazioa ikus daiteke.

Korronte glaziarrak (*Glacial currents*, 2018) obran, berriz, glaziarretatik ekarritako izotz-zatiak jartzen ditu pigmentuen gainean paperetan, eta, era horretan, tonalitate ezberdineko kontzentrazioak eta disoluzioak sortzen dira, paperaren gainean izotza urtzen doan heinean. Bestalde, *Distira esferiko glaziarra* (*Glacial spherical flare*, 2019) glaziarren higaduratik sortutako arroka-zati txiki-txikiekin egindako beirarekin eraikita dago.

Urteetan zehar, Islandia eta bertako fenomeno naturalak dokumentatzen dituen argazki-serieak sortu ditu Eliasson-ek. Artistarentzat herrialde hori fisikoki harremanetan egoteko beharra sentiarazten dion lekua da: eskalatzeko, oinez ibiltzeko, igeri egiten edo baita ibaiak baltsan zeharkatzen ere, *Ibaiko baltsaren seriean* (*The river-raft series*, 2000) gertatzen den moduan.

Islandian eman dituen denboraldiak esker Eliassonek zenbait baldintza atmosferikoekiko pertzepzio berezia garatu zuen eta horrek artistek historian zehar argia nola irudikatu duten aztertzea eraman zuen. *Kolore-esperimentua, 80. zk.* (*Colour experiment no. 80*) eta *Kolore-esperimentua, 81. zk.* (*Colour experiment no. 81*) lanean, Alemaniako Caspar David Friedrich (1774-1840) artistaren bi pinturaren paleta aztertzen du; biak 2019koak dira eta natura itzela irudikatzen dute: *Monjea itsasertzean* (*Der Mönch am Meer*, 1808-1810) eta *Zuhaitz bakartia* (*Der einsame Baum*, 1822). Bi koadro horiek dituzten kolore guztien abstrakzioa egin zuen Eliassonek eta ondoren proportzionalki banatu zituen bere bi mihise horietan, ordezko zirkulu kromatikoa osatuaz.

Eguzkitsua (*Suney*, 1995) obra Eliassonek kolorearekiko, arkitekturarekiko eta pertzepzioarekiko duen interesaren adibide goiztiarra da, eta areto honetako espazioa bitan zatitzen du.

Gelako horma batean kokatutako beirazko esfera handi batek, *Ikusteko espazioa* (*The seeing space*, 2015), gailu optiko moduan balio du bisitariari ondoko gelan dagoenaren irudi distorsionatuak eta alderantzikatuak eskaintzeko; alboko gela horretan, *Edertasuna* (*Beauty*, 1993) obra dago, espazio ilunagoan. Obra horretan, sabaian ilaran jarritako hodiekin foku batetik datorren argi-izpiaren aurrean lainobera mehea sortzen dute. Modu horretan, puntu batzuetatik, ur-gortinan ostadarra nola osatzen den

ikus daiteke, eta intentsitate aldetik aldatu edo desagertu egiten da bisitaria gertuago edo urrunago jartzen den eran.

204. aretoa

Big Bang iturria (Big Bang Fountain, 2014) obran, iturri bat argitzen duen argi estroboskopiko bat dago, eta argi horri esker ikusleak zurrustaren irudia izoztuta ikusten du, etengabe aldatzen den sekuentzia baten arabera, forma eskultoriko paregabe eta iragarrezinak osatuz. Une bat besterik ez dute irauten.

208. gela

Haurtzaroan, Eliasson tarteka Islandiara joaten zenez, konexio handia garatu zuen gurasoen jaioterriarekin eta hango paisaiarekin. 1999. urtean, Islandiako dozenaka glaziarri argazkia atera zien *Glaziarren seriea (The glacier series)* izeneko obrarako. Handik hogeitaz urtera, berriro itzuli zen beste behin argazkiak ateratzera. *Glaziarren urtzearen seriea 1999/2019 (The glacier melt series 1999/2019, 2019)* lanean, 1999ko eta 2019ko hogeita hamar irudi-bikote biltzen dira, eta gure planetarengan berotze globalak duen inpaktu dramatikoak erakusten dute.

Halaber, gela horretan, sabaitik kable batekin zintzilikatuta, haizagailu elektrikoa mugitzen da modu ibiltarian eta irregularrean espazioan barrena. *Haizagailua (Ventilator, 1997)* izeneko eskultura zinetikoa, *readymade* erakoa, higitzen duen aireak bultzatzen du.

Azkenik, bisitariak sofa luze bat aurkituko du, segmentu modularrez osatua eta ehundutako artilezko oihal berezi batekin estalia. Eliasson-ek diseinatu zuen Danimarkako Kvadrat ehun-markaren lankidetzarekin, eta jaistean itsasaldiak atzean uzten duen harearen ondulazioa gogorarazten du sofak.

Estudio hedatua

Eliasson-en jarduera artelanak, erakusketak eta eskultura publikoak egitetik haratago doa, eta, aspalditik interesatzen zaizkion gaiak islatzen dituzten proiektuak ere biltzen ditu, ingurunearen eta komunitatearen ingurukoak. Estudioarekin eta kanpoko kolaboratzaileekin egiten du lan proiektu arkitektonikoetan, liburuetan, hezkuntza-programetan eta dantza-proiektuetan, batzuk aipatzearen. 2014. urtean, arkitektura-etxea sortu zuen, Studio Other Spaces izeneko, bizitza osoko haren kolaboratzaile batekin, hots, Sebastian Behmann-ekin. Urteetan zehar, Eliasson-ek abian jarri ditu munduak gaur egun dituen erronkak zuzenean jorratzen dituzten proiektuak; esate baterako, energia berriztagarriak (Little Sun), klima-aldaketa (Ice Watch) eta migrazioak [*Argi berdea – Lantegi artistiko bat (Green light – An artistic workshop)*]. Espazio honetako pantailetan, hainbat filmaziotan abian dauden proiektu horietako batzuk agertzen dira bai eta Eliasson garatzen ari den proiektu arkitektonikoen eta estudioko eta estudioaren sukaldeko bizitzaren irudiak.

Estudio hedatuak Eliassonek haren Berlingo lantegian garatzen dituen interesak eta estudioko jarduerak gogora ekartzen ditu. Espazio honetan kokatutako iragarki-ohol handiaren materialak alfabetikoki ordenatuta dauden hitz gakoaren inguruan, eta panela Berlingo estudioaren hormetan oinarritzen da; bertan, ikerlari eta artisau taldeek nahiz Eliasson berak galderak, artikulak, irudiak eta ikerketa-lana partekatzen dituzte.

PROGRAMA PUBLIKOA

Artistaren hitzaldia: Olafur Eliasson (otsailak 12)

Erakusketaren inaugurazioaren aurreko egunetan, Olafur Eliasson bere obraz eta sormen-prozesuaz ez ezik, nazioartean garatzen dituen diziplina anitzeko proiektu mordoaz ere arituko da. Topaketan jorratuko dituen gai batzuen artean, klima, espazio publikoa, arkitektura eta migrazioa aurkitzen dira.

Partekatutako hausnarketak

Museoko arte-ardurako eta hezkuntza arloko profesionalekin egindako bisita paregabeak, erakusketaren edukiei buruzko ikuspegi ezberdinak eskuratu ahal izateko:

- *Arte-arduraren ikuspegia*: Lucía Agirrerekin batera, Museoko arte-arduraduna eta erakusketaren komisarioetako bat den aldetik, ibilbide bat egingo da erakusketako obra nagusiak ezagutzeko (otsailak 19).
- *Kontzeptu gakoak*: Marta Arzakek, Hezkuntza eta Interpretazioko zuzendariordeak, bertaratutakoekin hitz egingo du obra horien gako orokor eta didaktikoen inguruan (apirilak 1).

*Babeslea: Vizcaína Aguirre Fundazioa.

Mahai-ingurua: Artea bizitza errealean: GUTASUNA esploratzen (maiatzak 14)

“Gutasuna” (*we-ness* ingelesez) sinesmen edo helburu zehatz batekiko loturarik gabe elkarrekin egoteak sortzen duen batasun-sentimendua da, potentzial etengabea duena hain zuzen ere bere funtzioa derrigortua ez delako. Ideia horrek garrantzi nabarmena du erakusketaren ikerketan —modu inplizituan agertzen da klima, ekologia, konfiantza zein errukia bezalako arloetan— eta zerikusi handia du bizitzen ditugun banako eta taldeko esperientziekin.

Parte-hartzaileak: Lucía Agirre, erakusketaren komisariokidea eta Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna; Ezequiel di Paolo, Ikerbasque Fundazioko ikerketa irakaslea eta EHUko Logika eta Zientziaren Filosofia saileko irakaslea; besteak beste. Moderatzailea: Carlos Urroz, Thyssen-Bornemisza Art Contemporary fundazioaren zuzendaria.

Ikuspegiak partekatzen (maiatzak 16 eta 17):

Zer esan nahi du zure arretaren abiaduran mugitzea edo hautematea hauteman ahal izatea? Esperientzia bat taxutu dute hori argitzeko Dorte Bjerre Jensen ikerlari eta dantzariak Joe Dumit antropologoarekin batera; azken hau Kaliforniako UC Davis unibertsitateko Zientzia eta Teknologiako nahiz Antropologiako irakaslea da. *Ikuspegiak partekatzen* izeneko esperientzia honi esker parte-hartzaileek erakusketa bisitatuko dute espazioan hiru “ikuspegi” aurkitu arte, eta, ondoren, isilean beste parte-hartzaile batekin partekatuko dituzte. Amaieran, elkarrizketa bat egingo zaie parte-hartzaileei.

Ikuspegiak partekatzen esperientzia hau Olafur Eliasson-ek Andreas Roepstorff zientzialariarekin batera garatzen duen artea eta zientziaren arteko kolaborazio-proiektu baten parte da, Experimenting, Experiencing, Reflecting (EER) izeneko proiektua hain zuzen. Roepstorff Aarhus Unibertsitateko Ezagutza, Komunikazio eta Kulturako irakaslea da eta Medikuntza Klinikoaren Departamentuko eta Kultura eta Gizartea Eskolako zuzendaria.

Erakusketarekin lotutako programa publikoari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus: <https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/jarduerak>

LITTLE SUN

Little Sun enpresa soziala da (*social business*), eta Olafur Eliasson-ek diseinaturiko eguzki lanparak eta kargagailuak egiten ditu, argindarrik ez duten komunitateetan erabiltzeko. Guggenheim Bilbao Museoa Little Sun eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin esku hartzen du “Senegalerako argiak” proiektuaren bitartez. Lanparak eta kargagailuak Museoko Dendan salduko dira.

KATALOGOA

Erakusketarekin batera doan katalogoa Eliasson-en jardunaren «eremu-gida» moduan sortu da, eta, bertan, Mark Godfrey komisarioaren entsegua ez ezik, arlo artistikoan nahiz hortik kanpo —ekonomia, antropologia, iraunkortasuna, migrazioa, zientzia politikoak, biologia, arkitektura eta hirigintza, hezkuntza, dantza, musika eta elikadura bezalako arloetan— lan egiten duten pertsona askorekin artistak izandako hemezortzi elkarrizketa ere sartzen dira, Eliasson-ek eta haren estudioak egun errealitateari nola aurre egiten dioten argitzen laguntzen dutenak.

Azaleko irudia

Zure zalantzazko itzala (kolorea) [*Your uncertain shadow (colour)*], 2010

HMI lanparak (berdea, laranja, urdina, magenta), beira, aluminioa, transformadoreak

Neurri aldakorrak

Argazkia: María del Pilar García Ayensa / Studio Olafur Eliasson

Thyssen-Bornemisza Art Contemporary Collection, Viena

© 2010 Olafur Eliasson

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia ikusteko, joan hona: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa-eremua).

Prentsak erabiltzeko irudiak
Olafur Eliasson: bizitza errealean
Guggenheim Bilbao Museoa

Online prentsaren irudien zerbitzua

Museoaren web orrialdeko prentsa-arloan (prensa.guggenheim-bilbao.es) erregistratu ahal izango zarate erakusketen nahiz eraikinaren bereizmen altuko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu eta beharrezko materiala jaitxi dezakezue. Jadanik erabiltzaileak bazarete, berriz, jarri erabiltzaile-izena eta pasahitza eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrialdera.

- Irudiak soilik erabiliko dira *Olafur Eliasson: bizitza errealean* erakusketarekin loturiko publizitate editorialerako. Erakusketa Guggenheim Bilbao Museoa ikus ahal izango da 2020ko otsailaren 14tik ekainaren 21era bitarte.
- Oso-osorik erreproduzitu beharko dira, mozketarik, gaininprimatzerik eta manipulaziorik gabe, lehenengo orrialdean izan ezik, eta, horretarako, artistaren estudioak onartu beharko du maketa. Erreprodukzioetan ondorengoak jarri beharko dira: artistaren izena, izenburua eta obraren eguna, jabearen kreditua, copyright-a eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektronikoen babestuta egongo dira.
- Edozein irudik gehienez 1000 pixeleko bereizmena eduki ahal izango du alderik luzeenean. Online argitalpenean, artxiboa txertatuta egongo da, eta ezingo da deskargatu.
- Irudiak ezingo dira hirugarren bati edo datu-base batera transferitu.
- Azalean edo lehen orrialdean irudiak erabiltzeko kostu bat ordaintzea eskatu ahal izango da, eta jabearen eta obraren copyright-aren titularraren aurretiko baimena beharko da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko Prentsa Arloarekin; horretarako, deitu +34 944 359 008 telefonora edo idatzi media@guggenheim-bilbao.eus helbide elektronikora.

Olafur Eliasson

Edertasuna (Beauty), 1993

Fokua, ura, pitak, zura, mahuka, ponpa

Neurri aldakorrak

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Museum of Contemporary Art, Los Angeles

© 1993 Olafur Eliasson



Olafur Eliasson

Likenezko horma (Moss wall), 1994

Elur-orein likena, zura, alanbrea

Neurri aldakorrak

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Artistaren eskaintza: neugerriemschneider, Berlin; Tanya Bonakdar Gallery, New York / Los Angeles

© 1994 Olafur Eliasson

**Olafur Eliasson**

Kolore batentzako gela (Room for one color), 1997

Frekuentzia bakarreko lanparak

Neurri aldakorrak

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Artistaren eskaintza: neugerriemschneider, Berlin; Tanya Bonakdar Gallery, New York / Los Angeles

© 1997 Olafur Eliasson

**Olafur Eliasson**

Maketa-gela (Model room), 2003

Teknika mistoko ereduak, maketak eta prototipoak

Neurri aldakorrak

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Moderna Museet, Stockholm. 2015ean erositako honako hauen funtsekin: The Anna-Stina Malmberg and Gunnar Höglund Foundation

© 2003 Olafur Eliasson

**Olafur Eliasson**

Zure kolore-atlas atmosferikoa (Your atmospheric colour atlas), 2009

Argi fluoreszenteak, koloretako iragazkiak (gorria, berdea, urdina), aluminioa, altzairua, hartxintarra eta laino-sorgailua

Neurri aldakorrak

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

ARoS Aarhus Kunstmuseum, Danimarka

© 2009 Olafur Eliasson



Olafur Eliasson

Zure zalantzazko itzala (kolorea) [*Your uncertain shadow (colour)*], 2010

HMI lanparak (berdea, laranja, urdina, magenta), beira, aluminioa, transformadoreak

Neurri aldakorrak

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Thyssen-Bornemisza Art Contemporary Collection, Viena

© 2010 Olafur Eliasson

**Olafur Eliasson**

Big Bang iturria (Big Bang Fountain), 2014

Ura, argi estroboskopikoa, ponpa, pita, altzairu herdoilgaitza, zura, aparra, plastikoa, kontrol-unitatea, tindagaia

165 x 160 x 160 cm

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Artistaren eskaintza: neugerriemschneider, Berlin; Tanya Bonakdar Gallery, New York / Los Angeles

© 2014 Olafur Eliasson

**Olafur Eliasson**

Glaziarren urtzearen seriea 1999/2019 (The glacier melt series 1999/2019), 2019

Koloretako 30 kopia,

31 x 91 x 2,4 cm bakoitza

Instalazioaren bista eta xehetasuna: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Artistaren eskaintza: neugerriemschneider, Berlin; Tanya Bonakdar Gallery, New York / Los Angeles

© 2019 Olafur Eliasson

**Olafur Eliasson**

Absentziaren presentziaren pabiloia (The presence of absence pavilion), 2019

Brontzea

200 x 100 x 100 cm

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Artistaren eskaintza: neugerriemschneider, Berlin; Tanya Bonakdar Gallery, New York / Los Angeles

© 2019 Olafur Eliasson



Olafur Eliasson

Bizitza errealean (In real life), 2019

Aluminioa, efektu kromatikodun beirazko iragazkia (berdea, horia, laranja, gorria, arrosa, ziana), bonbilla, LED argia

Diametroa: 208 cm

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Centre Pompidou, Paris

© 2012 Olafur Eliasson

**Olafur Eliasson**

Ur-jauzia (Waterfall), 2019

Aldamioak, ura, zura, plastikozko xafla, aluminioa, ponpa, mahuka

Altuera: 11 metro, diametroa: 12 metro

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Erika Ede

Artistaren eskaintza: neugerriemschneider, Berlin; Tanya Bonakdar Gallery, New York / Los Angeles

© 2019 Olafur Eliasson

**Olafur Eliasson**

Argazkia: Runa Maya Mørk Huber / Studio Olafur Eliasson

© 2017 Olafur Eliasson

